



Iván Giménez

KAZETARIA ♦

Gatazkaren alde

GATAZKARIK GABEKO gizarte bat diktadura besterik ez da. Gatazkak, hala ere, “prentsa txarra” dauka: beldurra, indarkeria eta segurtasun eza burura ekartzen dizkigu. Gatazkaren alde egotea talibanengandik edo terrorismotik oso hurbil egotearen gauza bera omen da. Gatazka kontzeptu gaiztoa, erasokorra, biolentzia eta aldebakarrekoa bezala ulertzen da.

Egia da: eguneroko bizitza erosoagoa da beste guztiak bezala jokatzeko badugu, eta funtsezko aferetan ados gaudela adierazten badugu (batzuetan isiltzea nahikoa da), betiere gizartearen bizikidetzara apal eta lasai baten alde. Askotan, Gabonetako senide afarrietan bezala jokatzeko dugu arlo publikoan: giro ona eta baketsua ez apurtzeagatik, amore ematen dugu. Tentagarria da korrontearen barnean gure burua joaten uztea. Askoz nekagarriagoa, aldiz, izokina bezala ibaian gora abiatzea.

Hala ere, horrekin konformatzeak badu prezio garesti bat, Tony Judt historialariaren esanetan: “Kontsentsuaren demokraziak ez du demokrazia bezala gehiegi iraungo”. Azken finean, zer da kontsentsuaren demokrazia bat? Gauzak dauden bezala jarraitzeko joera politikoa, gehien-go isila tresna bezala erabiliz.

Honen eredurik perfektuena, berriro, Nafarroa da. Egutero entzuten ditugu kontsentsuaren aldeko adierazpenak, egonkortasuna eta berpizte ekonomikoa

zaku berean sartuz: hori dena lortzeko gako magikoa itun handi bat omen dela, “diferentzia politikoa alboratuz, interes orokorren mesedetan”.

Alabaina, hemen eta mundu osoan, desadostasuna eta uko egitea dira gizarte zabal baten bermeak. Gehiengo apal eta akritiko horren iritziaren aurkako herritarrak behar ditugu, benetako demokraziaren aldeko lana, hain justu, hau delako: oposizio ideologikoa, erroturik dauden printzipioak kolokan jartzea.

Erronka berriei erantzuteko energia ez dugu aurkituko betiko ideien zirkulu itxietan, edo kontsentsu politikora deituz.

Azken finean, desberdintzen gaituenak ematen digu banakako identitatea. Eta gizartean non gauden zehatz azaltzeko gure interesa markatzen du, interes orokorren gezurra azaleratuz. Interes ezberdinen talka horren joko zelaia gatazka da. Eta edozein gatazkaren aterabidea indar korrelazioaren arabera erabakitzen da.

Gauzak horrela, kontsentsua gatazka saihesteko trikimailu bat baino ez da, ahuleziaren seinalea. Horregatik, gatazka demokratikoaren bandera hartzen duena aurrera doa, beldurra arerioen aldera igaro dela agerian utziz. Eta kontsentsu baten eske dabilzanak kikilduta daude, haserretuen itxura egiten badute ere. ■

Kontsentsua gatazka saihesteko trikimailu bat baino ez da, ahuleziaren seinalea



DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Normaltasun testa

IRUDIKA EZAZU murru bat. Irudika ezazu bertan idatzirik NORMALA hitza eta jar zaitez ahalik eta gertuen. Eta orain pentsatu ondorengo baieztapenetan, eta zure burua baieztapenean sartzen bada, geratu geld, sartzen ez bada, eman pauso bat edo bi, atzera:

Nire sexua nire generoarekin bat dator. Nire aukera sexualak “gehiengoarekin” bat datoz. Nire itxura, estetika, gorpuzkera, gizon/emakume multzoetan sartu daitezke. Nire arraza edo azalaren kolorea, ingurura begiratzen dudanean ikusten dudaren antzekoa da. Bikotea dut. Nire hizkuntza gehiengoak darabilena da. Nire

egoera legala, ba hori, legala da. Ni, nire generokoak ez diren horientzat desiragarria naiz. Ligatu egiten dut. Nire gorputza “funtzionala” da, hau da, dibertsitate gabekoa. Nire adinarekin bat datorren bizimodua daramat. Ez naiz lodia, ez lodiegia behintzat. Neska banaiz, ile luzea dut, mutila banaiz, motza. Ez didate inoiz uzkitik eman. Nire ikasketa maila altua da. Aita eta ama batera bizi (izan) dira. Beti izan dugu diru iturriarik etxean.

Jarrai dezakegu. Baina geldi gaitzen. Eta zuk, nondik begiratzen diozu orain normaltasunari? ■

